

Erakundeak hazkunde estrategikorako **helburu nagusiak gainditu** ditu 2024ko **lehen seihilekoan**

Kutxabankek 263,7 milioi euroko irabazia lortu du eta 131,8 milioiko dibidendua emango die Fundazio akziodunei

- Oinarrizko diru-sarrerek hazkunde-maila handia izan dute, % 24 gora eginda
- Taldearen mailegu-inbertsioa % 1,3 hazi da, guztira 48.896 milioi eurora arte
- Enpresen eta erakundeen bankek beren helburuak bete dituzte, Handizkako Bankuaren kreditu-inbertsio produktiboa % 6,1 hazi baita
- Kontsumo-maileguez berriro ere hazkunde errekorra izan dute % 19 igo ostean, eragiketa digital berriek eta merkataritza-kredituaren indarrak bultzatuta
- Inbertsio funtsetan harpidetza garbi gehien dituen hirugarren Taldea da, 1.290 milioi euro bereganatuta
- Baliabide digitalen erabilgarritasun handiagoak bezero digitalen batez bestekoa % 64an kokatu du, eta salmenta guztien % 48 online egin dira
- Berankortasun tasa berriro hobetu da eta alor osoko onena da, % 1,31koa

2024ko uztailaren 24an. Kutxabank Taldeak 2024ko lehen seihilekoa **263,7 milioi** euroko irabazi garbiarekin amaitu du, iaz garai berean baino % **5,4** gehiago. Gainera, Akziodunen Batzar Nagusiak, Kutxabankeko Administrazio Kontseiluaren proposamenari jarraiki, urteko lehen seihilekoan lortutako emaitzen kontura **131,8 milioi** euroko behin-behineko dibidendua banatzea adostu du.

Kutxabanken seihilekoko emaitzak merkataritza-jardueraren eta **banku-negoio tipikoaren** bilakaeran oinarritu dira berriro ere, azken hau % **23,7** hazi baita, **interes marjinen** eta, batez ere, **aseguru-komisioen** eta **balantzetik kanpoko produktuetatik** lortutako sarreren bilakaerarengatik, hala nola inbertsio-funtsetatik, delegatutako zorrotatik eta aurreikuspen produktuetatik.

Bi epigrafeak % 13,5 baino gehiago hazi dira, eta horrek lortu du zerbitzuen eta ordainketa-bitartekoen jaitziera konpentsatzea, Kutxabankek milioi bat norbanako erabiltzaile baino gehiagori komisio guztiak kendu ondoren.

Kutxabankek lehen seihilekoan lortutako emaitzek baieztatzen dute erakundea bat datorrela **negozio-lerro nagusietan finkatutako hazkunde-helburuekin**, batez ere ahalmen handiagoko bektoretan, hala nola enpresetan, aurrezki-inbertsioan edo aseguru-jardueran. Negozioaren portaera on horrek **% 11 bultzatu du gora bezero berrien kopurua**.

Mailegu-inbertsioak gora egin du

Kutxabankek bideratu duen finantzazioak hazkunde positiboari eutsi dio, **Taldearen mailegu-inbertsioa % 1,3** hazi baita, guztira **48.896 milioi** eurora arte iritsita.

Erakundeak bere buruari jarri dizkion helburu-estrategikoekin bat eginez, **enpresen finantzaketa-jarduerak** emaitza onak lortzen jarraitu du 2024ko lehen hilabeteetan zehar. Sistemen eta bezeroen sailkapenean eraginkortasun irizpideak hobetu dira eta merkataritza-intentsitatea ere berritu da. Horren guztiaren laguntzaz, Handizkako Bankaren **inbertsio produktiboa % 6,1** hazi dute iazko ekainetik.

Hazkunde horri lagundu dio enpresetan **formalizazio berrietan 1.200 milioi** eurotik gora harpidetu izanak, bai eta ETEetan **aktibo finkoen** fakturazioaren zenbatekoa aurten **% 40** igo izanak ere.

Gainera, **bilakaera positibo** horren alde egin du Banka Instituzionalak, honen kreditu-inbertsioa **% 17,5** handitu baita. Sustapen Bankari dagokionean, **% 10,3** hazi da, eta finantzazio horren laguntzaz **2.100 etxebizitza** berritik gora eraiki ahal izango dira.

Handizkako Bankak aurrerapauso nabarmenak egin ditu negozioaren baitan **jasangarritasuna integratzeko**, zuzendari eta kudeatzaile espezializatuentzako prestakuntza saioak antolatu baitira eta bere negozio-eremuan jasangarritasuneko figura espezializatuak sortu baitira.

Kutxabank Investment Norbolsak, bere aldetik, fakturazioa **% 10,7** hazita eta jardueralerro guztietan bilakaera positiboa lortuta itxi du seihilekoa, kapital-merkatuetan eta M&A-en lorpen aipagarriak eskuratu ondoren.

Errekorra kontsumo-maileguetan

Kontsumoko maileguak dira Kutxabankek bere negozioerako hazkunde planetan duen apustu estrategikoetako bat. Jarduera honek **marka berria** ezarri du, **% 18,8**ko hazkundea izan baitu 2023ko ekainaren aldean, **% 32koa Merkataritza Kredituen** kasuan.

Sinatutako hipoteka kreditu berriei dagokienez, susperraldirako joera argia nabari zaie, 2024ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta **% 8,7** hazi eta ekainaren amaieran **1.606 milioi** eurora iritsi baitira.

Harpidetutako hipoteken zati handi bat prozesu digitalen bidez merkaturatu da, zehazki **% 79**. Urteko lehen hilabeteetan online salmentek produktu nagusietan hazten jarraitu dute eta gorakada nabarmena izan da, soluzio digitalen erabilgarritasun handiagoaren laguntzaz, besteak beste.

Kontratatu diren produktu eta zerbitzu guztien **% 48 kanal digitalen** bidez hartu dira, eta digital diren bezeroen batez bestekoa **% 64**koa da orain.

Kudeatutako ondarea hazi egin da

2024ko lehen seihilekoan '**Wealth Management**' alor berria abian jarri da eta bere antolaketa finkatu da. Oraingoz 38.000 milioi euroko aktiboak kudeatzen ditu alor berriak.

Unitate hau **bezeroetan eta kudeatutako aktiboetan hazteko** helburuarekin sortu da, negozio-dinamikak indartzeaz gain, produktu eta zerbitzuen eskaintza hobetu eta finantza-aholkularitzan erreferente izan nahi baitu.

Bide-orri honekin, Kutxabanke kudeatzen dituen **bezeroen baliabideek % 8** hazten jarraitu dute urtebetean, guztira **87.423 milioi** eurora iritsi dira, balantzetik kanpoko baliabideek bultzatuta, banka pribatuaren ekarpena barne. Azpimarratzekoak dira **% 12,6ko** igoera **inbertsio funtsetan**, **% 7,7koa pentsio-produktuetan**, eta **% 3koa aurrezkiak**, hau da, **agerikoak, eperakoak eta aurrezki planek**.

Kutxabank Taldea inbertsio funtsetan harpidetza garbi gehien izan dituen **hirugarren erakundea** izan da berriro, **1.290 milioi** euroko sarrerekin eta **% 7,5eko merkatu kuotarekin**.

Banakako pentsio produktuen bilakaera ere nabarmentzekoa izan da. Taldeak kudeatzen dituen **BGA**Een aktiboak **6.274 milioi** eurora heldu dira, 2023ko abenduan baino **% 2,12** gehiago, eta horrek merkatuko lidergoa **% 47ra** igo du.

Pentsio planetan saldo berrien sarrera garbien hazkundea nabaria izan da, aurtan **% 6,6** igo baitira.

70.000 aseguru-poliza berri

Aseguruen arloko merkataritza-jarduera biziagoaren ondorioz, seihilekoa hazkunde maila onarekin itxi du Kutxabankek, merkatuan **70.000 aseguru poliza** berri jarri eta gero, hau da, iazko abenduaren bukaeratik % 5 igota. Gainera **bezeroen esperientzia hobetu** ahal izan dute etxeetako erreklamazioak digitalizatu eta bezeroen arreta zerbitzua hobetu izanak, dei-zentroa sortu ondoren.

Bereziki etxeko aseguruetan nabarmena izan da merkataritza-kanpainen harrera, ekoizpen berria % **28** hazita, bai eta ehorzketa aseguruetan ere, % **22,6** igo baitira.

Jarduera biziagoaren ondorioz, aseguru-negozioak marjina gordinari egin dion ekarpena **84,2 milioi** eurora iritsi da, 2023ko ekainean baino % **5,7** gehiago.

Emaitzen kontua

Emaitzen kontuko marjina nagusi guztiek bilakaera ona izan dute.

Banku negozioaren 'oinarritzko' diru-sarrerak nabarmendu dira, % **23,7ko hazkundera izan baitute ia 1.008 milioi eurora** iritsita, batez ere Interesen Marjinak bultzatuta, **686,7 milioi** eurokoa izan baita, % **34,4** handiagoa.

Partaidetuen zorroaren ekarpen errepikakorrak aurreikuspenak gainditu ditu dibidenduen eta elkartuen ekarpenaren bidez, eta 69 milioi eurotan kokatu dira. Orotara, **Marjina Gordina 990 milioi** eurora iritsi da, % **21,5** gehiago.

Ustiapeneko gastuak erakundeak uste baino hobeak izan dira, % **8,1** hazi dira iazkoarekin alderatuta, batez ere langileen gastuak handitu direlako eta digitalizazio prozesua azkartu delako.

Kudeaketako ohiko irizpide zorrotzei jarraiki, mailegu-zorroaren eta beste aktibo batzuen **saneamendu maila handitzen** jarraitu du Taldeak, eta zuzkidura hauetara **318,2 milioi** euro bideratu ditu.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2024ko ekaina

Miloi eurotan	2022ko ekaina	%Δ
Interesen Marjina	686,7	34,4
Zerbitzuen eta aseguruen sarrerak	321,1	5,7
Banka negozioaren core sarrerak	1.007,8	23,7
Dibidenduak, baliokidetasunak eta ROF	74,8	-4,5
Beste ustiapen emaitzak	-92,5	18,5
Marjina Gordina	990,1	21,5
Ustiapen gastuak	-342,9	8,1
Ustiapen Marjina	647,2	30,0
Saneamenduak eta narriadurak	-318,2	121,3
Beste irabazi eta galerak	13,9	57,8
Zergen aurreko emaitza	342,9	-5,5
Zergak eta bestelakoak	-79,2	-29,5
Taldearen emaitza	263,7	5,4

Adierazle nagusiak

Kutxabanken **berankortasun-tasak** hobetzen jarraitu du, % **1,31ra** murriztu arte, alorraren batez bestekoa baino **oinarriko 229 puntu** hobea, maiatzaren amaieran azken hau % 3,6koa baitzen.

Errentagarritasun-adierazleetan aurrerapen garrantzitsuak ekarri dituzte sarrera errepikakorrak sortzeko erakundeak duen gaitasunak eta gastuen bilakaerak. Honela, **ROTE % 9,4koa** zen ekainaren amaieran, **ROA % 0,8koa** eta **eraginkortasun ratioa % 35,7koa** ROF eta bankuen zergaren eragina kenduta.

Kutxabankek bere kokapen sendoari eusten dio kaudimenean, % **18,2ko CET1 fully loaded**-ekin, aurten oinarrizko 30 puntu hazi eta gero.